



Ebaluazio-eskaera betetzen laguntzeko gida

Aurkibidea

Sarrera, eskaera izapidetzea eta tasaren ordainketa	3
Eskabidea aplikazio informatikoan betetzea	3-4
Atalka betetzea:	
1. Ikerketa, ezagutzaren transferentzia eta dibulgazio zientifikoa.....	5-14
2. Irakaskuntza.....	14-16
3. Kudeaketa	16
4. A mailaren sartzea	17



Obra honen edukiak Creative Commons Aitorpen-Ez-Komertziala-Sin-Obra-Derivada 3.0 lizentzia bati lotuta daude. Erreproduktzioa, banaketa eta komunikazio publikoa baimentzen dira, betiere egiletza behar bezala aipatzen bada eta erabilera komertzialik egiten ez bada. Lizentzia osoa hemen kontsulta daiteke: <http://creativecommons.org/>

© Unibasq – Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentzia
San Prudencio Kalea, 8, 01005 Vitoria-Gasteiz
www.unibasq.eus

Unibasq-en talde teknikoak egin eta Agentziako Aholku Batzordeak berrikusitako gida

2023ko iraila

Sarrera

Gida honen helburua Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko (hemendik aurrera UPV/EHU) irakasle eta ikertzaileei ordainsari osagarriak esleitzeko ebaluazio-eskaera betetzen laguntzea da.

Komeni da aipatzea Unibasq UPV/EHUren Gizarte Kontseiluak onartu eta argitaratzen duen deialdiaren ebaluazio-organoa baino ez dela.

UPV/EHUK indarrean dagoen araudian ezarritako legezko eta formazko eskakizunak betetzen direla egiaztatu ostean igorritako eskaerak ebaluatzen ditu Unibasqek. Horren ondoren, Unibasqek ebaluazio-txostena egiten du; txosten hori beharrezkoa da UPV/EHUK ordainsari osagarrien esleipena ebatzi ahal izateko.

Gida hau irakurtzeaz gain, Unibasqen webguneko (<http://www.unibasq.eus>) *Irakasleak* ataleko BOO UPV/EHU atala bisitatzea gomendatzen diogu eskatzaileari, informazio gehiago aurkituko baitu. Webgune honetan aurkituko du FAQ dokumentua, ebaluazioa eskatzen dutenei gehien sortzen zaizkien galderak eta zailtasunak argitzeko baliagarria. Edozein zalantza izanez gero, bidali zuen kontsultak helbide elektronikoko honetara: osagarriak@unibasq.eus

Eskaera izapidetzea

Ebaluazio-eskaera horretarako prestatutako aplikazio informatikoaren bitartez soilik izapidetzen da: <https://ehu.unibasq.eus/login>. Horretarako, datu pertsonalak eta atal eta azpiataletan ebaluatzen diren merezimenduak adierazi behar dira, eta merezimendu horien egiaztagiria aurkeztu. Paperean aurkeztutako eskabideak eta merezimenduak ez dira ebaluatuko, eta ez dira kontuan hartuko modu frogagarrian justifikatu gabeko merezimenduak.

Tasa ordaintzea

B eta A mailetakosagarrien eskaeren kasuan soilik, 48,49 euroko tasa ordaindu behar da, deialdian adierazten denez. Ordainketa egin izana egiaztatu behar da, dagokion egiaztagiriaren bitartez. Aplikazio informatikoan telematikoki jasota geratu behar du egiaztagiria, ebaluazioa egin aurretik egiaztatu ahal izateko.

Aplikazio informatikoak adieraziko dio eskatzaileari nola erregistratu plataforman ordainketa egin izanaren egiaztagiria. Dokumentu hori erantsi ezean, ezin izango da eskaera itxi eta, beraz, ebaluazio-prozesutik kanpo geratuko da.

Eskaera betetzea

1. Eskaera aplikazio informatikoan betetzea

Eskatzaileak eskaeraren atal eta azpiatal guzti-guztiak bete behar ditu; horretarako, aplikazio informatikoak berak eskatzen dizkion datuak sartu beharko ditu (tituluak, deskribapenak, hasiera-data, amaiera-data, kredituak eta abar). Ebaluazioa egiteko, eskatutako aldia segidako bost urteko bloketan banatuko da, eskatzaileak 2022ko abenduaren 31 arte aurkeztutako merezimenduak kontuan hartuta.

Eskatzaileak bizitza akademiko osoko merezimenduak ebaluatza nahi badu, UPV/EHUri jakinarazi beharko dio, ebaluazioa eskatzen duen aldiaren hasierako data, ondorengo posta elektronikoko bidez: complementos.pdi@ehu.eus. Horregatik, eskatzaileak aurkeztu behar dituen merezimenduak bloketan banatuko dira, eta bloke bakoitzak merezimenduak justifikatzeko dagokion fitxategia izan behar du. Egiaztagirien ordena

aplikazio informatikoan adierazitakoa izango da, betiere eskaeran sartutako datuen arabera, honako atal eta azpiatal hauetan: 1) ikerketa, ezagutzaren transferentzia eta dibulgazio zientifikoa; 2) irakaskuntza eta 3) kudeaketa

Eskaeran aipatzen diren merezimendu guztiak frogatzeko moduan egiaztatu behar dira; horretarako, dagokion dokumentazioa aurkeztu behar da dokumentu honetan zehaztutako jarraibideei jarraikiz. Behar bezala adierazi eta justifikatu gabeko merezimenduak ez dira aintzat hartuko Ebaluazio Batzordeetako kideek ebaluazioa egiteko garaian.

Mezu elektronikoak ez dira egiaztagiriztat onartuko. Artikulu bat, liburu-kapitulu bat, liburu bat, eta abar aintzat hartu ahal izateko, ebaluagai den datan argitaratutakoa izan beharko du.

Merezimenduak justifikatzeko agirien kopiek ez dute konpultsatuak izan behar.

Horretaz gain, aurreko fitxategietan sartutako dokumentazioaren aurkibidea aurkeztu behar da pdf formatuko beste fitxategi batean, dokumentuen ordena adierazita.

“A2” tarte eskatzen duenak CV osoa igo beharko du, nahi duen formatuan. Baita autotxostena ere.

Gainerako tarteetan CV osoa aurkeztea aukerakoa da, nahi den formatuan. Ez da ebaluatuko, aitzitik, eskatzailearen ibilbidea testuinguruan kokatzeko balio izango du, eta ebaluatzaileek erabili ahal izango dute.

Atalka betetzea

1. Ikerketaren, Ezagutzaren Transferentziaren eta Dibulgazio Zientifikoaren atala

1.1. Ikerketa

1.1.1. Argitalpenak

Atal honetan, eskatzaileak bera egile den liburuak, liburuen kapituluak, artikulua eta patenteak sartuko ditu.

Argitalpenak ebaluatzeko, I. eranskinean jasotako irizpideak izango dira Ebaluazio Batzordeko kideen erreferentzia.

Atal honetako merezimenduak justifikatzeko, honako datu hauek aipatu behar dira:

- Liburuak: egilea, izenburua, argitalpenaren tokia, argitaletxea, argitalpenaren urtea, liburuak zenbat orrialde dituen, ISBNa, kalitate-zantzuak eta hizkuntza, DOIa eta gordailuetarako esteka adierazi behar dira eskaeran.
- Liburu bateko kapituluak: egilea, kapituluaren izenburua, liburu osoaren izenburua, liburu osoaren argitaratzailea, argitalpenaren tokia, argitaletxea, argitalpenaren urtea, kapituluaren orrialdeak, ISBNa, kalitate-zantzuak eta hizkuntza, DOIa eta gordailuetarako esteka adierazi behar dira eskaeran.
- Artikuluak: egilea, izenburua, aldizkariaren izena, aldizkariaren zenbakia eta argitalpenaren urtea adierazi behar dira eskaeran. Halaber, kalitate-zantzuak, inpaktu-faktorea, aldizkariaren posizio erlatiboa, kuartila, aipamen kopurua, DOIa eta gordailuetarako esteka, ISSNa eta hizkuntza ere aipatu behar dira.

Ez da beharrezkoa izango argitalpen bakoitzaren kopia bat eranstea. Nahikoa izango da kasu bakoitzean, aplikazio informatikoak eskatutako eremuak betetzea, Baldin eta emandako informazioa nahikoa argia eta espezifikoa bada argitalpena aurkitu ahal izateko.

Ezin izango dira sartu argitaletxeak onartu bai, baina oraindik argitaratu gabe dauden artikulua, liburuak edo liburuetako kapituluak.

Eskatzaileak kalitate-indizea, kuartila eta, hala badagokio, gordailurako esteka ere adierazi beharko ditu.

Patenteei dagokienez, erregistroan jasota dauden datuak adierazi behar dira eskaeran. Justifikatzeko, erregistro-eta emakida-egiaztagiri ofizialen kopiak erantsiko dira.

Erakusketak antolatzearen eta katalogoen kasuetan (Arte Ederren arloa), erakusketaren izenburua, iraupena, kalitate-adierazleak eta inpaktu-adierazleak ezagutza-arloaren arabera adierazi beharko dira.

Eskatzaileak gehienez ere 15 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzeko.

1.1.2. Ikerketa-arloko talde, sare eta proiektuetan modu aktiboan parte hartzea

Aplikazio informatikoaren atal honetako eremuak bete beharko ditu eskatzaileak, hala nola deialdi mota, jardueraren izena, taldearen izena, Eusko Jaurlaritzaren A+. A edo B taldea, proiektuaren izenburua, parte-hartze mota, arduraldia, finantzatzen duen erakundea, proiektuan duen kategoria, ikertzaile nagusiaren izena, titulua, hasierako eta amaierako data, emandako finantzaketa (zenbatekoa) eta abar.

UPV/EHUri lotutako langile gisa egindako ikerketa-proiektu, ikerketa-talde, kontratu partaidetza, sare eta gisa berekoen justifikazioari dagokienez, erakunde horren ziurtagiria edo ziurtagiriaren kopia erantsi beharko da (Ikertu plataformatik lor daiteke ziurtagiri hori). Aipatutako ziurtagirian jasotzen ez den merezimendu bat izanez gero, dagokion Unibertsitateak edo erakundeak emandako antzeko ziurtagiri bat edo ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko da, edo, bestela, proiektu, talde, kontratu, sare edo antzekoaren deialdia egin duen erakundearen ebazpena edo ebazpenaren kopia, non argi eta garbi eta berariaz adieraziko den eskatzailearen parte hartzea lantaldean, arduraldi mota, lortutako finantzaketa-zenbatekoa eta jardueran emandako denbora. Proiektu, talde, kontratu, sare edo antzekoaren ikertzaile nagusiak sinatutako idazki edo ziurtagirietan oinarrituriko merezimenduen dokumentazioa ez da zuzena izango.

Arlo kliniko kasuan, lehia bidezko deialdietako ikerketa klinikoko jarduerak ere balioetsiko dira, betiere osasun-agintaritza eskudunak egiaztatutako deialdiak badira.

Eskatzaileak gehienez ere 5 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzeko.

1.1.3. Kongresuetan parte-hartzea eta beste merezimendu batzuk

1.1.3.1 Kongresuetan parte hartzea

Ebaluazio Batzordeak nazioartekoak diren kongresu zientifikoak baino ez ditu ebaluatuko eta, salbuespen gisa, garrantzi handia duten nazioko kongresuak, betiere ezagutza-arloaren arabera. Kongresuan izandako parte-hartze mota ere balioetsiko da.

Kongresuaren izenburua eta hitzaldiaren izenburua adierazi beharko dira, bai eta erakunde antolatzailea, non izan den eta noiz egin den ere.

Ekitaldiaren antolatzaileek egindako ziurtagiri baten bitartez justifikatu behar dira kongresu guztiak. Eskatzaileak aurkeztutako ekarpenak soilik ebaluatuko dira. Nolanahi ere, argi eta garbi adierazi behar da eskatzailea kongresuko hizlaria den ala ez. Era berean, eskatzaileak adierazi beharko du, hala badagokio, kongresuan parte hartzea banakakoa edo kolektiboa izan den. Kolektiboa izanez gero, bigarren eremu bat bete beharko da, zenbat pertsonak parte hartu duten adierazteko.

1.1.3.2 Beste merezimendu batzuk

Eskatzaileak honako merezimendu hauek sartu ahal izango ditu aplikazio informatikoan: egin dituen egonaldiak, goraipamenak, jasotako sariak eta abar. Aurkeztutako merezimendu bakoitzak UPV/EHUri egindako ekarpena adierazi behar da.

Eskatzaileak gehienez ere 10 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu 1.1.3 atal osoan, bost urteko bloke bakoitzeko.

1.2. Ezagutzaren transferentzia eta dibulgazio zientifikoa

Atal honetako merezimenduak ebaluatu ahal izateko, eskatzaileak ikerketako seiurteko bat edo ikerketako ikertramo bat, gutxienez, egiaztatu beharko du. Nahikoa izango da ikerketako seiurteko bat edo ikertramo bat egiaztatzea eskaera bakoitzeko, ebaluatu beharreko bloke kopurua edozein izanik ere.

Eskatzaileak seiurtekoaren edo ikertramoaren egiaztatzea erantsi beharko dio eskaerari.

1.2.1. Ezagutzaren transferentzia

1.2.1.1 Pertsonen prestakuntza eta ekintzailtza-jarduerak

Azpiatal honetan honako hauek dira merezimendu hautagarriak:

- a) I+G+b proiektu eta kontratueta kontratatu diren pertsonen prestakuntza-jarduerak.

Bereziki balioetsiko da kontratatuko persona horiei eskuratutako unibertsitate-ezagutzak beste enpresa edo erakunde batzuei transmititzeko aukera eman dien prestakuntza.

- b) Transferentzia-jardueretan kontratatutako pertsonen kopurua (I+G+b proiektuak eta kontratuak).

Eskatzaileek aurkezten dituzten kontratuak eskatzailea bera espezialista den esparruko ezagutza transferitzeko jarduerekin lotuta egon behar dute hautagarriak izateko. Ez dira kontuak hartuko eskatzaile batek kargu akademiko edo arduran politiko edo instituzional gisa sustatutako kontratatutak. Kontratutako pertsonak ez badu zuzeneko inplikaziorik proiektu edo kontratuaren edukietan (administrazio- eta kudeaketa-kontratuak,), eta abar), kontratu horiek ez dira kontuan izango.

Pertsonak ezagutzaren transferentziako jardueretan prestatzeko ahalegina balioetsiko da, eskatzailearen espezializazio-eremuari lotuta daudenean. Horretarako, eskaera aurkezterakoan aukeratutako aldiaren sortutako kontratu-hilabeteen kopurua hartuko dira kontuan. Horrekin, sortutako kontratazio-hilabeteen kopuruaren arabera balioetsiko da jarduera hori, egindako transferentzia-jardueraren arabera sortutako zuzeneko enpleguaren adierazgarri eta, zeharka, pertsonen prestakuntzaren adierazgarri den aldetik.

Azpiatal honetan I+G+Bko kontratu (LOUren 83. Artikuluaren babesean ezartzen dira) eta I+G+b proiektuak, baldin eta partzuergoa mistoa bada, hots, unibertsitatetik eta zientzia-sistematik kanpoko enpresa edo erakundeek eta ikertzaileek osatzen badute.

- c) Ekintzailtza-jardueretan kontratatutako pertsona kopurua.

Enpresa berriak (spin-off edo startup motakoak) sortzea ekarri duten ikerketa-emaitzak aplikatzearen ondorioz sortutako enplegua hartuko da kontuan.

Spin-off-en kasuan, eskatzaileak sortutako enplegu-zenbatekoa eta enpleguen ezaugarriak egiaztatu beharko ditu. Startupen kasuan eskatzaileak enpresa sortu ahal izateko bere ikerketen ekarpenaren ebidentzia argiak aurkeztu beharko ditu.

Ez da sartzen ekintzailtza prestakuntzari lotutako jarduera bakar bat ere (autoenpleguko ikastaro orokorrak ematea edo ekintzailtza-programak dinamizatzea), baina 1.2.1.4 azpiatalaren alderdiren batean sar daitezke beharbada. Alderdi honetan zera balioesten da, alde batetik, sortutako zuzeneko enplegua, norberak egindako merkatu-azterketaren transferentziatik sortutako ekintzailtza bitartez, eta, bestetik, zeharka, pertsonak transferitutako gai horri lotuta prestatzea.

- d) Tesi industrialak (enpresarialak edo irakaskuntzakoak ez diren erakunde garrantzitsuak).

Tesi industrialtzat hartzen dira doktoregoko ikasleek aurkeztutakoak, betiere doktoregoa egiten ari den ikasleak lan egiten duen kanpo-erakundearen (unibertsitatea edo ikerketa-zentroa ez dena) eta unibertsitatearen arteko lankidetzak-akordio bidez egiten direnak. Doktorearen Unibertsitate Tituluaren Europako Gehigarria emateko baldintzak ezartzen dituen maiatzaren 13ko 195/2016 Errege Dekretuaren 15 bis (Aipamen industrialak doktore-tituluan). Positiboki balioetsiko da tesi industrialak kanpoko erakundeko doktoreekin batera egin izana. Gogoan izan 2.3 atalean sartu ez badira aukeratu ahal izango direla.

Azpiatal honetan sartuko dira Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko 14/2011 Legearen 18. eta 19. artikuluetan aipatzen diren kontratuak, hau da, kanpoko erakundeetan egindako aldi baterako kontratuak. Era berean, espezialista-plaza asistentzialak lotura-araubidean duten unibertsitate-irakasleek itunpeko osasun-erakundeetan egindako jarduera ere sartuko da.

Azpiatal honetan, Unibertsitateak hirugarren erakundeetan (publikoak, sozialak edo merkataritzakoak) kualitatiboki eta kuantitatiboki duen eragina hartzen da aintzat, baldin eta bertan parte hartu badezake (zuzenean edo behartuta).

Horretarako, Zuzenbidean baliozkoak diren eta dagozkion kontratu-formulak balioetsi eta ebaluatuko dira. Adibidez, zerbitzu-eginkizunen, zerbitzu berezien edo eszedentzien kasuan gertatzen den moduan, indarrean dagoen estatuko, erkidegoko edo unibertsitateko araudiaren aplikazioaren arabera.

Ikertzaileen mugikortasuna sustatu nahi da, Enplegatutako Publikoaren Legean bilduta dauden figurak baliatuta, bere espezialitateko ezagutza propioa hirugarren erakundeetara eramane eta transmititzeko aldi baterako zeregina egin dezaten, batez ere Zientzia eta Teknologiaren Legean adierazten diren enpresetara; azken urteetan oso gutxi erabili izan da.

Erakundearen gutun bat aurkeztu behar da eta, bertan, egindako jarduera eta transferitutako ezagutzaren kalitate-zantzuak labur-labur adierazi behar dira. Jarduerak aurrerapen zientifiko-teknologikoarekin duen lotura laburki azaldu beharko du eskatzaileak. Ez dira kontuan izango egindako jarduera irakaskuntzakoa edo kudeaketakoa denean eskatzailearen espezialitatearekin loturarik ez duten jardueretan.

Kontratuaren iraupena, kontratu mota eta erakunde kontratatzailearen izen ona hartuko dira kontuan. Erakundearen gutun bat aurkeztu behar da eta, bertan, egindako jarduera eta transferitutako ezagutzaren kalitate-zantzuak labur-labur adierazi behar dira.

1.2.1.2 Transferentzia, kanpoko baliabide ekonomikoak jasota

Azpiatal honetan, duten inpaktuagatik, xede den komunitatean edo lurraldean aberastasun ekonomikoa sortzen duten eta trakzio-ahalmena duten merezimenduak aukeratu ahal izango dira. Atal honetan bereziki kontuan izango da UPV/EHUko kanpoko baliabide ekonomikoak erakartzea.

Azpiatal honetan honako hauek sartuko dira:

- a) Patenteak, ustiatzen ari diren utilitate-modeloak.

Atal honetan hautagarria da eskatzailearen eremuaren barruko ezagutza babestu guztia, lizentziaduna dena eta, beraz, ikertzailearen erakunderako royalty-engatiko fakturazioa sortzen ari dena.

Ustiatzen ari diren utilitate-modeloak edo patenteak baino ez dira hartuko kontuan.

- b) Unibertsitateen Lege Organikoaren 83. artikuluko kontratueta eta transferentzia-proiektuan parte hartzea.
- Funtsak UPV/EHUr itzultzen dituzten enpresa, erakunde eta administrazio publikoekin egindako ikerketa-arloko kontratu edo hitzarmeneta parte hartu izana, betiere unibertsitateak araututako ohiko sistemen bidez formalizatutakoak izanik. Eskatzaileak kontratu/hitzarmenean izan duen parte-hartze mota (ikertzaile nagusia, ikertzailea, prestakuntzan) kontuan izango da, haren iraupena, egindako transferentziaren kalitate-zantzuak, kontratu edo hitzarmeneta emaitzak eta UPV/EHUn izan duen inpaktu ekonomikoa ere.
 - Lehia bidezko deialdietan esleitutako proiektuetan parte hartu izana, enpresa, erakunde eta administrazio publikoekin egindako proiektuak izanik. Deialdia egin duen organoaren izen ona kontuan izango da, eskatzaileak proiektuan izan duen parte-hartze mota (ikertzaile nagusia, ikertzailea, prestakuntzan), proiektuaren iraupena, egindako transferentziaren kalitate-zantzuak, proiektuaren emaitzak, eta UPV/EHUn izan duen inpaktu ekonomikoa. Atal honetan ez lirateke kontuan hartuko ikerketa-proiektu eta -talde lehiakorrekin lotutako merezimenduk; izan ere, ikerketa-jardueraren parte dira eta, beraz, dagokien atalean jasoko lirateke.

Ekarpen hautagarriak parte-hartze motaren, iraupenaren, fakturazio-zenbatekoaren, enpresan duen eraginaren, konplexutasunaren, originaltasunaren eta zorrotasun zientifiko eta metodologikoaren arabera balioetsiko dira, besteak beste.

1.2.1.3 Gizartean eragin berezia duen transferentzia

Ezagutzaren transferentziaren helburu nagusia arazo sozial bat konpontzea denean, ikertzaileek askotan ez dute jasotzen inolako ordainsaririk jarduera horrengatik, eta beraz lankidetzaren formatua unibertsitatearen eta laguntza behar duen erakundearen arteko lankidetzeta-hitzarmen bat izan ohi da.

Azpiatal honetan honako hauek sartuko dira:

- UPV/EHUK eta irabazi-asmorik gabeko erakunderen edo administrazio publikoren batek gizartean eragin berezia duten jarduerak garatzeko sinatutako kontratu edo hitzarmeneta parte hartu izana.

Eskatzaileak kontratu/hitzarmenean izan duen parte-hartze mota (ikertzaile nagusia, ikertzailea, prestakuntzan) kontuan izango da, haren iraupena, egindako transferentziaren kalitate-zantzuak, proiektuaren emaitzak, baita gizartean izan duen eragin edo inpaktua ere.

- Gizarte-garapenerako proiektuetan parte hartu izana, lehia bidezko deialdien bitartez esleitutako proiektuak izanik.

Deialdia egin duen organoaren izen ona kontuan izango da, eskatzaileak proiektuan izan duen parte-hartze mota (ikertzaile nagusia, ikertzailea, prestakuntzan), proiektuaren iraupena, egindako transferentziaren kalitate-zantzuak, proiektuaren emaitzak, eta gizartean izan duen eragina.

Eskatzaileak gehienez ere 6 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu 1.2.1 azpiatal osoan, bost urteko bloke bakoitzeko.

1.2.2. Dibulgazio zientifikoa

Atal honetan ekarpen bat egiten dela ulertuko da azpiatal bakoitzean merezimendu-multzo bat jasotzen denean, betiere merezimendu horiek dibulgazio zientifikoa eremuan ibilbide esanguratsua izan dela abalatzeko badute.

1.2.2.1 Dibulgazioko argitalpenak

- *Liburuak eta liburuetako kapituluak:* Dibulgazio zientifikoko liburuak izango dira. Ez da kontuan izango zientziaren hainbat arlotako espezializazioko edo irakaskuntzako liburuen egile izatea.
- *Dibulgazioko artikulak:* Egilea edo egileetako bat ebaluatzen den pertsona duten dibulgazioko artikulak soilik izango dira kontuan. Eskatzailearen aipamena egiten duten edo eskatzaileari elkarrizketa egiten zaionean ez dira artikulak gisa hartuko.
- *Erakusketak:* Garrantzi handiko erakusketak, fisikoak zein birtualak. Aztarnategi arkeologikoen musealizazioak eta tematizazioak. Egile izatea (edukien sorkuntza) nahiz antolatzea balioetsiko dira.
- *Materialak sortzea:* Inpaktu handiko dibulgazio zientifikoko tresna diren material bereziak edo produktu espezifikoak. Edozein motatakoak izan daitezke, fisikoak edo birtualak, baldin eta zientziaren-dibulgaziorako badira (adibidez, mahai-jokoak, komikiak, liburuxkak, infografiak, bideoak, bideo-jokoak edo mugikorren aplikazioak). Item honetan aurkeztutako merezimenduak ezin dira bloke honetako beste atal batzuetan ere aldi berean aintzat hartu (adibidez, liburuen edo erakusketa bateko sormenezko edukien egile izatea merezimendutzat aurkeztu bada, merezimendu hori dagokion itemean balioetsiko da, ez hemen), eta horregatik materialak produktu originala eta bakarra izan behar du. Ebaluazioari begira, kalitate-zantzuei dagokienez, ohikoak hartuko dira kontuan, hala nola produktuaren kalitatea, originaltasuna, egiteko konplexutasuna, sariak eta akreditazioak, besteak beste. Inpaktu sozialaren zantzuei dagokienez, xede publikoaren gaineko eragina, produktuaren erabiltzaile-zenbateko, nazioarteko hedapena, ekaitzako banako-kopurua eta aipamenak, besteak beste.

Ez da beharrezkoa dibulgaziotako argitalpenen kopia bat aurkeztea, nahikoa da horiei buruzko ohiko datuak aurkeztea, lokalizatzeko eta ebaluatzeko nahikoak badira, baina beharrezkoa da aplikazio informatikoak eskatutako datuak frogatzeko moduan adieraztea.

1.2.2.2 Ikerketaren dibulgazioko eta zabalkundeko jarduerak ikus-entzunezko komunikabideetan

Azpiatal honetan, UPV/EHUK, Kultura Zientifikoko Katedrak, UPV/EHUren Uda Ikastaroak Fundazioak edo izen oneko unibertsitateetako kultura zientifikoko unitateek antolatutako jardueretan izandako parte-hartzea, batik bat, sartuko da. Jardueraren kalitate-zantzuak kontuan izango dira, baita ekitaldiak komunikabideetan izan duen oihartzunaren edo gizaritza izan duen inpaktuaren adierazleak ere.

Azpiatal honetan hauek dira hautagarriak (sar daitezkeenak):

- *Telebista eta irratia:* Dibulgazio zientifikora argi eta garbi bideratuta dauden programak, serieak edo programetako atalak. Gai zientifikoa bati buruzko albiste edo noizbehinkako adierazpenak kanpo uzten dira. Ikastaroak: zientzia modu presentzian zein birtualean hedatzeko eta komunikatzeko gaiei buruzko ikastaroak. Eskatzaileak antolatzaile/koordinatzaile edo irakasle gisa parte har dezake. Kanpoan geratzen dira jasotako ikastaroak eta irakaskuntza arautua.

- Dibulgazio-jardunaldiak: Solasaldiak, debateak, askotariko dibulgazio-jarduerak (kafe-zientzia, ikertzaileen gaua, etab.) edo horien antzeko bestelako jarduerak sartzen dira. Ebaluatutako pertsonak antolatzaile/koordinatzaile moduan parte har dezake, edo bestela irakasle gisa (dagokion edukia emanez).

Lehiaketak: Gizartea zientzia eta kulturarekiko motibatzea helburu duten lehiaketak, edo kolektibo sozialak alderdi zientifikoetan edo zientzia eta kultura zientifikoaren zabalkundearekin zerikusia duen edo beste edozein alderditan

trebatzea helburu dutenak. Ebaluatutako pertsonak antolatzaile/koordinatzaile moduan parte har dezake, edo bestela lehiaketaren sortzaile gisa.

1.2.2.3 Dibulgazioa sare sozialen bitartez

Azpiatal honetan hauek dira hautagarriak (sar daitezkeenak):

- Blogak: Dibulgazio zientifikoari buruzko blog aktiboak eta irekiak.
- Dibulgazioa sare sozialetan: Sare sozialen bitartez informazio zientifikoa zorrotzasun akademikoz zabaltzen laguntzen duten jarduerak balioetsiko dira.. Eskatzaileak gehienez ere 3 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu 1.2.2 azpiatal osoan, bost urteko bloke bakoitzeko.

Eskatzaileak komunikabide mota, parte-hartze mota, parte-hartzearen maiztasuna, kalitate-zantzuak eta eragin sozialeko zantzuak adierazi behar ditu; horretarako, webgunearen esteka eman behar du. Adibidez, Kalitatearen zantzu gisa, alegatutako merezimendua <https://divulgasfera.org/> gordailuan sartu izana aurkeztu ahal izango da.

2. Irakaskuntza atala

2.1 Docentiaz programako ebaluazioa

Eskatzaileak ebaluatutako urte-tartearen aldeko emakidaren hilabetea eta urtea adierazi beharko ditu, hau da, emakidaren ebazpenaren data, baita bertan lortutako puntuazioa ere.

Justifikazioa UPV/EHUK egindako ziurtagiriarekin egiaztatuko da; ziurtagiri horretan, lehen aipatutako datuak agertuko dira. UPV/EHUK emandako ziurtagirian egiaztatu beharko da eskatzaileari bere dimentsio bakoitzean emandako balorazioa. Horretarako, UPV/EHUK egindako ebaluazioaren emaitzaren komunikazioa baliozkoa izango da, organo eskudunak sinatuta betiere.

Docentiaz programaren ebaluazio bat baino ez da balioetsiko bloke bakoitzeko.

2.2 Docentiaz programaren ordezkotza ebaluazioa

2.2.1 Nazioartekotzea, metodologiak eta berrikuntza irakaskuntzan

Eskatzaileak honako datu hauek adierazi behar ditu:

Gradu-amaierako eta master-amaierako lanen zuzendaritza: lanaren izenburua, zein titulaziotan defendatu den eta defentsaren data. Bideratuta bai, baina eskaera aurkeztu den egunean defendatu gabe dauden Master Amaierako Lanak eta Gradu Amaierako Lanak ezin izango dira sartu. Defendatutako Master Amaierako Lanak eta Gradu Amaierako Lanak Unibertsitateak egindako ziurtagiri batekin justifikatuko dira.

Kalitatea onartuta duten graduoko eta graduondoko programetan parte hartu izana; nazioarteko proiektzioa bereziki balioetsiko da. Datu hauek aipatu behar dira: ikasturtea, titulazioa, irakasgaia, programaren kalitate-zantzuak eta

emandako kreditu kopurua. Merezimendu hauek titulazioaren erantzule den Unibertsitateko organo eskudunak egindako ziurtagiriaren bitartez eta titulazioa beste batzuetatik bereizten duten kalitate-zantzuak aurkeztuta egiaztatuko dira. Paragrafo honetan aipatutako ondorioetarako, ez da kalitate-zantzutzat hartuko kalitate-agentzia eskudunak egindako titulazio ofizial baten egiaztapen soila.

Ofiziala ez den hizkuntza batean eskolak eman izana, betiere eskatzailearen ezagutza-arloko aztergaia ez denean. Datu hauek aipatu behar dira: ikasturtea, titulazioa, irakasgaia, hizkuntza eta emandako kreditu kopurua. Unibertsitateak egindako ziurtagiriaren bitartez justifikatuko da.

Nazioarteko irakasleen/ikasleen truke-programetan parte hartu izana. Irakaskuntzako truke-programen –hala nola Erasmus programa– bitartez, ekintza integratuen bitartez edo antzeko beste ekintza batzuen bitartez beste unibertsitate batzuetan egindako egonaldiak soilik hartuko dira kontuan. Datu hauek adierazi behar dira: truke-programa, trukea egin duen unibertsitatea edo zentroa, parte-hartzearen iraupena eta egindako jarduera. Unibertsitateak egindako ziurtagiriaren bitartez justifikatuko da.

Frogatutako zabalkundea izan duen irakasmateriala prestatu izana: artikulua, liburua edo liburuetoako kapituluak idatzi izana izen oneko aldizkari eta argitaletxeetan. Aintzat hartuko dira honako hauek: kanpoko ebaluazio-prozesua originalak argitaratzean, argitaletxea, hizkuntza, beste kalitate-zantzu batzuk eta argitalpenaren inpaktua. Datu hauek adierazi behar dira: argitaletxea edo aldizkaria, egilea, izenburua, orrialde kopurua, ISBNa edo ISSN edo DOIa, data eta komunikabidearen kalitate-zantzuak, baita argitalpenaren kalitate-zantzuak ere. Ez da beharrezkoa horien kopia aurkeztea.

Berrikuntza pedagogikoko proiektuetan (unibertsitatearen beraren edo beste erakunde batzuen hezkuntza-arloko berrikuntzako proiektuak eta abar) eta gizartearen eragin handia duten proiektuetan parte hartu izana. Datu hauek adieraziko dira: deialdia egin duen organoa, parte-hartze mota, jardueraren deskribapena, iraupena, emandako finantzaketa eta jardueraren emaitzak. Deialdia egin duen organoak emandako ziurtagiriaren bitartez justifikatuko da.

UPV/EHUn ikasleei prestakuntza akademikoa emateko jarduerak antolatu izana. Aurkeztutako merezimenduen deskribapen labur bat, hauen iraupena eta kalitate-zantzuak adieraziko dira. Unibertsitateak egindako ziurtagiriaren bitartez justifikatuko da.

UPV/EHUn eskaintza birtualean parte hartu izana. Datu hauek aipatu behar dira: ikasturtea, titulazioa, irakasgaia eta emandako kreditu kopurua. Unibertsitateak egindako ziurtagiriaren bitartez justifikatuko da.

Irakaslanarekin lotutako sariak jaso izana. Sariaren izena, saria ematen duen organoa edo taldea, eta kalitate-zantzuak adierazi behar dira. Sariaren ebazpen publikoaren kopia edo sariaren egiaztatzea aurkeztuta justifikatuko da.

2.2.2 Ikaskuntzaren emaitzak

Eskatzaileak datu hauek aipatu behar ditu: ikasturtea, titulazioa, irakasgaia, ikasleen iritziari buruzko inkestaren emaitza eta emandako kreditu kopurua.

Eskatzaileak irakaskuntzaren kalitateari buruz aurkezten dituen ebaluazioak justifikatzeko, ikasleen inkestak kopiatu erantsiko da.

Eskatzaileak gehienez ere 30 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu 2.2 azpiatal osoan, bost urteko bloke bakoitzeko.

2.3 Ebaluazioaldian defendatutako doktorego-tesien zuzendaritza

Eskatzaileak datu hauek adierazi behar ditu: unibertsitatea, doktorego-programaren izena, tesiaren izenburua, zuzendarikidetzak –hala badagokio–, zuzendarien kopurua, irakurtze-zentroa, irakurtze-urtea, kalifikazioa eta aparteko saria lortu izana aipatzea, hala badagokio.

Eskatzaileak gehienez ere 3 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzeko.

Ebaluazio Batzordeek tesi industrialei dagokien merezimendua 2.3 azpiatalean balioetsiko dute, baldin eta ez bada 1.2.1 azpiatalean sartu.

3. Kudeaketaren atala

3.1 Kide bakarreko kudeaketa-kargu akademikoak bete izana

Eskatzaileak bete duen kargua eta karguaren iraupena adierazi beharko ditu.

Merezimendu hauek justifikatzeko, eskatzaileak zerbitzu-orriaren kopia erantsi beharko du, edo izendapeneko eta kargutik kentzeko ebazpenaren kopia, edo jarduera egin den Unibertsitateak egindako ziurtagiriaren bitartez justifikatu beharko du.

3.2 Administrazio Publikoan karguak bete izana, zerbitzu berezien egoeran

Eskatzaileak bete duen kargua eta karguaren iraupena adierazi beharko ditu.

Merezimendu hauek justifikatzeko, eskatzaileak zerbitzu-orriaren kopia erantsi beharko du, edo izendapeneko eta kargutik kentzeko ebazpenaren kopia.

3.3 Kudeaketako beste jarduera batzuk

Eskatzaileak Ebaluazio Protokoloan jasotako beste bestelako kudeaketa-merezimenduak sartu ahal izango ditu, betiere dagozkien ziurtagiriaren bitartez egiaztatzen baditu.

Eskatzaileak gehienez ere 5 ekarpen aurkeztu ahal izango ditu bost urteko bloke bakoitzeko.

4 A Mailaren sartzea

4.1 A1 tartean sartzea

Eskatzaileak 3 ikerketa seiurteko edo ikerketa ikertramo dituela justifikatu beharko du, CNEAIaren edo Unibasqen Ebazpenaren kopia aurkeztuta.

4.2 A2 tartean sartzea

Eskatzaileak, berak egindako autotxosten batean, bere bizitza akademiko osoko lau ekarpen garrantzitsuenak zeintzuk izan diren adierazi beharko du eskaerako lau ataletan. Halaber, horien guztien kalitate-zantzuak egiaztatzen dituen kopia aurkeztu ahal izango du.

A2 tartearen ebaluazioa egiteko, derrigorrezkoa da eskatzaileak bere jarduera akademiko osoaren CVa eranstea.